

# Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: “leku sakratuen” desagertzea

Alberto Angulo Morales  
EHUko irakaslea

Aurkezten dugun ikerlan honen asmoa XVIII. mendeko Euskal Herrian guztiz gatazkatsua den arazo bati, kontrabandoari, emandako erantzun ezberdinen balioa neurtzean datza. Badirudi, Euskal Herriko lurraldeetan bizi ziren partaide historiko gehienek (bai Foru-Aldundiak, bai biztanleria, bai Espainiako Erret Ordezkariek) kontrabandoari erantzunen bat eman nahi ziotela; ondorioz, aktore historiko bakoitzaren nahiak kontuan hartuz, amankomun bihurtutako arazo horri aurre egiteko asmoz, estrategiak, akordioak eta gatazkak nolakoak izan ziren ikusi ahal izango dugu. Azken finean, Euskal Herrian zeuden erakunde guztien nahia zen legez kontrako iharduera erabat arriskutsu hori desagertzea; horretarako kontrabandisten eta gaizkileen ohiko trikimailuak desagertarazi nahi zituzten. Are gehiago, kontrabandisten babeslekuak desagertu ondoren, Euskal Herriko lurraldeen eta biztanleriaren kontrola erraztu zutelakoan zeuden. Horregatik, artikulu honetan ikertu nahi izan dugun gaia XVIII. mendeko Estatu Berriaren garapenarekin guztiz loturik dago.

The aim of this work is to measure the values of different answers given to smuggling, a conflictive business in the Basque Country of the XVIII century. All historical members of the Basque lands (County Councils, population, Spanish representatives) tried to face up to smuggling; in consequence, considering the wishes of each of these historical actors, we will see which were their strategies, agreements and conflicts to undertake the problem and how were they like. Actually, the wish of all Basque institutions was the disappearance of dangerous smuggling; they pretended to stop the illegal operations carried out by smugglers and other malefactors. Furthermore, after making disappear the refuges for smugglers, authorities thought they had a greater and better control on Basque lands and population. For this reason, the matter we write on in this article is closely related to the development of the New State in the XVIII century.

Erregimen Zaharrear zehar, kontrabandoaren arazoa sarritan planteatu da, eta legez kontrako ekintza honen egileen aurkezpena erabat ezberdina izan ohi da, ikuspuntuaren arabera. Euskal Herriko kontrabandoaren munduari lotzen zaizkion ezaugarriak modu anitzetan ikertu dira; ondorioz, interpretazioak oparoak bezain kontrajarriak izan dira. Ildo honetatik jarraituz lantxo honetan ikertu nahi dugun puntu nagusia hau da: Euskal Herriko kanpoko botere handiek (hots, Espainiako Koroak zein Kalagorriko Apezpikuak) nahiz Euskal Herriko Aldundiek XVIII. mende osoan zehar (bereziki, bigarren zatian) harturiko neurriak eta erabaki judizialak euskal lurraldeetan han-hemenka ibiltzen ziren marginatuen eta *gaizkileen* aurka (kontzeptu honetan pertsona-mota asko sartzen zirela kontuan hartuz, besteak beste, kontrabandistak, lapurrak, eskaleak, pobreak, garai hartako komunitetatik kanporatuak, etab.).

Mendearen hasiera-hasieratik, Euskal Herriaren eta Espainako Koroa borboiaren arteko istiluak, hika-mikak eta borrokak inoiz baino gehiago ugaltu ziren, esparrurik eztabaidatuena

kontrabandoarena zelarik. “Gaueko lan”aren edo kontrabandoaren kontzeptuan sarturik zeuden delitu-motak, pentsa dezakegun baino zabalagoak ziren, garai hartako izkribuek erakusten diguten bezala; esate baterako, Erregimen Zaharreko arautegietan ez ziren ezberdintzen kontrabandoa eta iruzurra: sarritan nahasturik aurkitu ohi ditugu (Angulo 1995a: 173-174). Nahasketa handi hau kontuan harturik, XVIII. mendean Arabako Aldundiak harturiko erabakiak ez zaizkigu hain arraroak irudituko. Zehazki, Espainiako Koroak Arabako Aldundiari herrialde hartako kontrabandisten kopurua murriztuz joan ordez, gero eta handiagoa zela azaltzeko asmoz, gutun adierazgarri ugari bidali zion, zeintzuetan egoera hori kontrolpean mantentzeko mota guztietako neurriak erabili behar zituela gogorki esaten baitzion<sup>1</sup>. Euskal Herriko kontrabandoaren garpena bereziki loturik zegoen Espainako Erregetza borboiaren asmo nagusiekin, baita XIX. mendean sorturiko Foruen edo lege berezien babespenarekin ere. Egia esan, XIX. mendean zehar Foruen eta kontrabandoaren arazoak erabat loturik agertzen zaizkigu eta bata bestea kontuan hartzeke, erabat ulergaitza litzaziguke.

---

1. Valparaiso Kontea nahiko kezkatuta zegoen Arabako lurraldeetan tabako-kontrabandoa gehituz baitzihon eta, ondorioz, Arabako Diputatu Nagusiari gutun adierazgarri bat bidali zion, ondokoa esanez: «ocasionando notable decadencia en los valores de la Renta y lo que es más sensible la pérdida de los muchos vasallos que con abandono de sus casas y familias se dan al Contrabando, sufriendo los castigos». (A)RABAKO (L)URRALDE (H)ISTORIKOAREN (A)GIRITEGIA. (D)OKUMENTAZIO (H)ISTORIKOA. 286-10 Leg. Alde batetik, mezu honen bidez, Valparaiso Konteak lurralde zehatz bateko agintari nagusiari zeintzuk izango ziren gaueko lanaren ezezko ondorioak eta emaitza txarrak (ekonomiari zein kontrol sozialari dagokienean) adierazi nahi zion. Geroago, Carlos III. ministroen iritzia argi azaltzen zaigu, 1770ean Miguel de Muzquizek euskal probintzia batzuetatik Gaztelara eta Nafarroara zamariak tabako gehiegi sartzen ari zirela zioen., «arruinandose tantos Vasallos, y familias quanto son los procesados, que llevados de su codicia, y atraídos de las cercanías, y facilidad con que hallan el genero en essa Provincia se entregan al fraude». Horrela, erakunde bakoitzaren asmoak erabat ezberdinak zirela esan beharrik ez dago, baina, aldi berean, beren helburuak aurreratzeko hitzarmen garrantzitsu batzuk lortu zituztela ez dugu ukatzerik. Haietariko bat, garrantzitsuena izango denik esan nahi ez badut ere, talde etniko, sozial eta legez kanpoko batzuk agintarien kontrolpean jartzeari zegokiona zen eta, helburu honen menpean zeudenak, besteak beste, ijituak, gaizkileak, lapurrak eta kontrabandistak ziren.

## **Euskal Herriko kontrabandoaren arazoari buruzko zehaztasun batzuk**

Kontrabandoaren garrantzia neur-tzea zaila da. Alabaina ez da gure nahia horren balorazio ekonomikorik egitea, XVIII. mendeko kontrabandoaren aurkako neurri politikoen atzean ezkutatzen diren arrazoirik sakonenak aztertzea baizik. Honetan Koroa zein Euskal Herriko probintzien agintariak bat zetozen: batzuen eta besteen lehentasuna, gizartearen eta gizarte-talde guztien kontrola bereganatzea zen. Goiko giza taldeetako ustez, biztanleriaren kontrola zen konpon-tzeke zegoen arazorik handienetarikoa bat.

Hori dela eta, oro har kontrol eska-seko biztanleak eta baztertuak agintea-ren eskupean biltzeko ahaleginak areagotu ziren, esaterako erakunde berezietara sarraraziz<sup>2</sup>, edo besterik gabe lurraldetik kanporatuz. XVIII. mendeko Euskal Herrian ibili ziren bi-daiari atzerritar gehienek bidai liburue-tan aipamen amankomun bat errepika-tu ohi zuten: Euskal Herriko hiri han-dienetan –eta, bereziki, Gasteizen– aduanetako jagoleen miaketak jasan behar zituztela eta, aldi berean, bideak ez zirela beren jatorrizko herrietakoak bezain ziurrak aldarrikatzen zuten. Martin Zeillerek, XVII. mendeko lehen erdialdean egindako bidai batean azaltzen zuenez, «por toda España tiene el viajero que resistir las desa-gradables molestias de los guardias de las puertas, que piden pequeños regalos a los que salen de la ciudad y Vitoria es el comienzo de esta desa-gradable costumbre de importunar al

viandante»<sup>3</sup>. Euskal Herriko sistema aduaneroa zail samarra zen, labirinto baten antza zuelarik, baina konplexu-tasun honek iturburua Espainiako Ko-roaren asmo nagusian zuen: «estable-cer y asegurar al Rey una renta muy gruesa, prompta y efectiva» (Portillo 1991: 465), eta honek kontrabandoa menperatzera bultzatzen zuen, adua-nak baitziren diru-iturririk funtsezkoenak. Juan José Laborda Martínek adierazten duenez, Espainiako Koroak uste zuen iruzurra eta kontrabandistak Espainiako herrialde guztietatik desa-gertaraztea Erret Ogasunaren garape-nerako ezezik Gaztelako ekonomiaren onerako ere ezinbestekoa zela (Laborda 1981: 80). Koroaren asmo hauek ondo erakusten diguten moduan, XVIII. mendean kontrabandoa nahiko bar-reiatuta zegoen Espainia osoan ze-har, punturik beroenak Gibraltarreko esparrua, Katalunia, Pirinioak, Euskal Herria eta Extremadurako muga luzea zirelarik. Euskal Herrian berezi behar dira, alde batetik hiru probintziak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), eta bestetik Nafarroako erreinua, zeren eta garai hartan aduanei dagokienez Nafarrako guneak berezko antolaketa zuen (*Tablas* izenarekin ezaguna zen egitura) (García Zúñiga 1992: 195-207; Bartolomé 1991: 139-163).

Kontrabandoaz hitz egiterakoan, eleberrietako edo filmeetako irudiak etortzen zaizkigu begietara: ekintza le-gez kontrako baina onuragarri hauetan herri xehearen partaidetza erakusten digutenak alegia. Egia esan, nahiz eta logikaz argudio hau guztiz onargarria den, hortaz aurki dezakegun informa-zioa oso eskasa da. 1788ko irailaren

2. Hor ditugu, adibidez, marginatuak hartzeko XVIII. mendeko ilustratu eta boteretsuek sorturiko erakunde berriak: *Casas de Piedad*, *Hospicios* eta *Casas de Misericordia*. Angulo 1995b: 23-36. Gai honetaz ikus dezakezue Gracia, 1993 eta 1995.

3. Santoyo 1972: 80. Pasarte hori *Itinerarium Hispaniae oder Rais Beschreibung durch die Königreich Hispanien und Portugal* (Nuremberg, 1637) izeneko liburutik hartutakoa da.

20an Nafarroako aduanetako jagoleei buruz egindako txosten batean, irakur dezakegu nolakoa zen herri xehearen partaidetza hauetan:

A los sugetos que notoriamente se ejercitan en el fraude y suelen ser bien conocidos por los resguardos de las fronteras, seria util perseguirlos en sus mismas Casas, embargandoles desde luego los bienes que tengan, y procurando su prision para imponerles el correspondiente castigo *precediendo para esto una informacion secreta con testigos de vista* que se remita a VE. en que resulten sus nombres y vecindarios, y que se emplean en el contravando, solos o acompañados con otros, aunque falte la aprehension Real de tabaco o genero, por la cautela y precaucion con que caminan<sup>4</sup>.

Gutun baten pasartetxo honetan argi eta garbi ikusten da zeintzuk ziren aduanetako jagoleek erabili behar zituzten armak (besteak beste: ixilpeko informazioak, salaketak, zelatarien txostenak, etab.). Horrela, Blas de Vivancok –Lastraseko erretoreak– egin zuenak ez gaitu harrituko. Pedro Jacinto de Alavaren kontaketaz baliatuz, badakigu erretore honek Balmasedako aduanetako kudeatzaileari Virginia tabakoko bost libera eman zizkiola «manifestandole las habia puesto en su poder un vecino bajo de confesion»<sup>5</sup>. Apaiz honen deskribapena ontzat hartuz gero, aitortzen elizkide baten azkenengo aukera izango zela argi legoke, baina, kontrabando-munduaren barnean sarritan gertatu ohi zen bezala, bai salatarien bai jagoleen bai kontrabandisten azalpenak kontu handiz hartzekoak dira, azken finean, egileek aitorten hauen guztien barruan asmo zehatzen bat adierazi nahi zuten eta. Nire aburuz, pasarte

hauetatik atera dezakegun informaziorik interesgarriena Euskal Herriko herrixka eta hiri guztietan kontrabandoaren onarpena nahiko zabaldurik zegoela azaltzean datza. Hori zela eta, Koroak egoera horri aurre egiteko mota guztietako neurriak hartzea funtsezkotzat jotzen zuen. Gainera, kontrabando orokor honekin batera, Espainiako Koroaren zerbitzariak eta Euskal Herriko Aldundiek beste kontrabandomota batzuk (konkretuki, zamariak zein bidaiariak zein arlosteek egindako kontrabandoa eta iruzurra) bukarazteko ahalegin eta baliabide asko jarri zituzten.

Ikusi ahal izan dugun bezala, kontrabandoaren aldetik, Euskal Herria baino gune gatazkatsua gorik aurkitzea ez zen batere erraza, baina, XVIII. mendearen hasieratik neurri oso eraginkor batzuek Espainiako Koroari egoera hura desagertarazten edo gutxitzen lagundu zioten. Besteak beste, Koroaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundien arteko hitzarmenak dira neurri hauetako aipagarrienak, José M<sup>a</sup> Portillo Valdésen ustez. Akordio-andana hau 1723 eta 1727 bitartean egin zen, bi alde sinatzaileek (Koroak eta Aldundiek) eginiko itunei balio guztiz kontrakoak eman zizkio-telarik:

a. Koroak zioen –edo, hobeto esanda, uste zuen– eskuratutako paktua arautegi berri bat besterik ez zela eta, ondorioz, akordio hori izendatzeko *capitulaciones* hitza erabili zuen. Honekin, arautegi honen lerroek aitortzen zutena Erret Haziendaren asmoa besterik ez zela adierazi nahi zuen Koroak, eta bide batez, hitzarmen honen sinatzaileak ez zirela parekoak.

4. (S)IMANCAS-EKO (A)GIRITEGI (O)ROKORRA. Secretaría y Superintendencia de Hacienda. 2.265 Zbk. Leg.

5. SAO. Dirección General de Rentas (2<sup>a</sup> Remesa). 4.621 Zbk. Leg.

b. Euskal aldundiek, berriz, beste berba bat erabili zuten: *Convenciones*. Hitz hau erabiliz, sinatzaileak berdinak zirela azpimarratu nahi zuten, eta, aldi berean, akordioa inondik inora ez zela Koroaren agindu soiltzat hartua izango.

Hemen ez dugu bi interpretazio hauen artean zuzena zein den ikertu nahi, batik-bat biak egiazkoak zirela gaudelakoan. XVIII. mendearen hasieratik, dinastia berriak Espainiako lurralde guztien arteko berdintasuna (hots, batasun administratiboa) ezartzeko buru-belarri lan egin zuen, helburu honen bila zuzenduz ahalegin gehienak. Felipe V.ak eginiko aldaketarik aipagarriena Euskal Herriko barneko aduanak lekuz aldatzeko saioa izan zen. 1717an. José Rodrigo Felipe V.aren idazkariak Gipuzkoako Aldundiari argitu nahi zionez, hura garrantzi handiko aldaketa zen Erret Haziendaren egitura zein osasuna sendotzeko. Alabaina, handik hiru urtera Koroako zerbitzariak konturatu ziren porrot handia bilakatu zela eta eginiko aldaketa guztiak ahalik eta lasterren atzera bueltatzeko agindua eman zuten. Une hartan, Euskal Herriko instituzioek eta gizarte-talde gehienek erabaki hori garaipentzat hartu zuten, eta beraz hitzarmen berri bat egiteko momenturik aproposena zela-koan zeuden. Paktu hau sinatzeko prozesua nahiko luzea egin zitzairen euskal aldundiei eta, gainera, herrialde bakoitza bere aldetik ibili zen. Lehenengo sinatu zena Arabako Aldundiarekin eginikoa izan zen, 1723an; eta 1727an beste idazki bat osatu zuten Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiekin sinatzeko.

Portillo Valdéseak azpimarratu duenari jarraituz, hitzarmen hau Euskal Herriko Aldundietako nahientzat onuragarria izan ezezik, Espainiako Koroaren asmoentzat baliagarria izan zen. Hitzarmenari esker, badakigu Euskal Herriko barneko aduanek ohiko lekue-  
tan ipinita jarraituko zutela, eta paktua-  
ren emaitza konkretu hau, euskal era-  
kunderen aburuz, lorpen arrakastatsu-  
tzat hartu zen. Aldi berean, ondorio  
horrek borboien nahiekin zerikusirik ez  
zuela eta, logikaz, atzerapauso bat zi-  
tzaiela suposa dezakegu, baina lerro  
tarteetan miaketa sakonagoa eginez, ha-  
sierako inpresio ezkor hori erabat alda-  
tzen da. Aduanak ohiko lekuetara itzul-  
tzeaz aparte, bi itunetan beste mota  
askotako gaiak ukitu, eztabaidatu eta  
onartu ziren.

Lehendabizikoz, euskal Aldundiek bere lurraldeetan ipinitako agenteek kontrabandoaren aurkako borrokan parte hartzeko baietza ematen zuten (*justicias ordinarias* deritzatenak eta, geroago, Araban *Alcaldes de Hermandad*). Eginkizun honen bitartez, paktu hauetatik aurrera, Espainiako Koroak Aldundien eta hauen menpekoen laguntza eta elkarlana lortzen zuen. Egia esan, egoera hori ez zen guztiz berria, zeren eta XVII. mendearen bukaeran Arabako Aldundien ordezkariak ideia bera aurrera eraman nahi izan baitzuten. Koroa, tabakoaren errentari dagokionean, aldaketa sakon batzuk egiten saiatu zen XVIII. mendearen hasieran<sup>6</sup>, baina arazoak berpiztu ziren Kantabriako Aduanetako Gobernadore berria Arabako Biltzar

---

6. Felipe Ortuño de Aguirre, Gasteizko auzokide ospetsu bat, Luis de Loyo Maedak sinaturiko Erret Agindu batekin Gasteizko alkatearengana abiatu zen. Erret Agindu honek zioen Aguirrek botere guztiak zituela Gasteizen bertan tabako-aduana berri bat eraikitzeko, ekintza hori izan baitzen «de suma combenienzia para su Magestad y aumento de su Real hacienda». ALHA. Aktak. M-19. 1684ko apirilaren 19ko Biltzar Nagusia (arratsalde). 442r. Fol. Gasteizko Alkateak, Bernardino de Isunzak, eginiko lehendabiziko erantzuna gogor samarra izan zen eta, foru-baimenaren bidez, Ortuñok zeraman agindua balio gabetu zuen.

Nagusiei foru-baimena eskatzera joan zen unean. Diego Manuel de Esquibel gobernadore berriak aduanetako jagoleen kopurua gehitzeko Erret Agindua bazuen, baina Arabako Biltzarrak baimena ezeztatu zion, eta Koroaren erantzuna gogor samarra izan zen, Arabako komisiaduneri Madrileko gortera deituz. Koroak tabakoaren errenta kontrolpean izateko aduana eta jagole berezi batzuk jartzeko grina erakutsi zuen berriro. Hasieran, Arabako lege berezien aurkako zenez, Aldundiaren oposizio garbia aurkitu zuen. Haatik, denboraren poderioz, aldundi arabarra jabetu zen egoera honetatik ateratzea ez zela izango aurreko mendean bezain erraza, eta presaren presaz proposamen berri batzuk garatu zituen. Horietako garrantzitsuena zera izan zen: Koroak tabako-kontrabandoaren borrokan Arabako alkateen partaidetza onartzea, aduanetako jagoleen lana onuragarriagoa izango baitzen Arabako mugetan soilik jarrita geratuta<sup>7</sup>. Ideia hau aldarrikatuz eta babestuz, Arabako Aldundiko Diputatu Nagusiak Espainiako Koroaren ordezkariari nahiko txosten eta eskaera bidali zizkien, berak bultzaturiko egitasmo honen balioa gortzen zutelarik. Arabako agintarien aburuz, gainera, irtenbide berri horrek Koroaren asmo nagusiari lagunduko zion, hots, hiru probintzietako bazter guztietan garatzen zen barneko kontrabandoa, oso garaturik zegoena, desagertaraziko zukeen.

Helburu hori lortzeko asmoz, botere probintziales Koroari tabako eta beste ekoizkin batzuen kontrabandoaren aurkako borrokan baliabide nagusi guztiak eskainiko zizkieten, batez ere herri guztietako alkateak eta justiziak. Neurri hau eskaintzean, Diputatu Nagusiak Arabako haranetan eta herrietan egiten zen kontrabandoaren aurkako borrokaren arduraz jabetu nahi zuen. Arabako Aldundiak aduanetako jagoleen kokapena herrialde honetako mugetan finkatzea erabat komenigarria izango zela planteatzen zuen, baina barneko kontrola Arabako herri guztien alkateen edo justizien kargu izatea hobesten zuen. Koroak Probintziak garaturiko proposamena begi onez ikusi eta ideia aurrera eramateko beharrezkoak ziren baldintza eta baimen osoak eman zizkion aldundi arabarrari. Laburbilduz, akordio honekin Felipe V.aren arrakasta barneko kontrabandoaren aurkako borroka tokiko agintarien eskuetan uztea izan zela esan dezakegu.

Aldi berean, elkarlanaren proposamenaz gain, Euskal Herriko foru-erakunde gehienek zioten aduanetako eta tabako-errentaren jagoleen lanak arazo larriak sortzen zituela, bereziki lurralde hauetako biztanleriari dagokionez. Esaterako, 1818an Infantado Dukearen lurraldeetako alkate nagusi batek –Forondakoak– Kantabria Barrutiko Gobernatzaleari bidalitako salake-

---

7. Arabako lege berezien eta nahien defentsa primeran ikusten da hurrengo pasarteetan: «ser cosa muy Zieta que semejante nobedad E Yndroducion No puede dar aumentos a la renta del Tavaco ni Ebitar los fraudes que se cometen en ella, sino es antes bien repetirlos y perjudicarle Sus Yntereses, y aun a los demas de puertas y diezmos, como podra hacer constar Yncontinenti, que an decaido en mas de una tercera parte de su valor regular; *porque no Estando los Guardas y ministros de ella a la salida para Castilla, Aragon y Navarra, sino es dentro de la Provincia y lugares de ella, dexan abiertto el paso a los defraudadores, para que con maior libertad puedan salir por Caminos y beredas Escusadas, demas de las Ynponderables Estorsiones que Executan con los arrieros*, antes de llegar a las Aduanas y que ia se ban Empezando a Experimentar con el motivo de si lleban o no tavacos para sacar a Castilla y demas partes *tan perjudiziales a el Trafico y comercio que llegara el Caso de que se Extinga y acabe Sin que aya alguno que se dedique al transporte y conducion de Jeneros ningunos*». ALHA. Aktak. M-26. 1714ko uztailaren 16ko Biltzar Nagusia. 113v.-114r. Fol.

ta dugu, Gasteizko aduanako jagole-talde batek herri honetako auzokide baten etxeari legez aurkako miaketa bat egin nahi izan ziolako<sup>8</sup>. Lehenago, XVIII. mendean zehar, mota askotako legez kontrako kasuak aurki ditza-kegu: jagoleen eta arabarren arteko istiluak, borrokak, irainak, lotsaizunak, etabar. Bizkaian eta Gipuzkoan ere, nahikoa gertakizun antzekoak ager-tzen zaizkigu. Nekazari bizkaitarrek borboien Erret Ogasunaren ordezkariak gaizki ikusiak zituzten, jagole hauen presentzia euskaldunen legeen aurkako egoeratzat hartzen zuten eta<sup>9</sup>. Aurka-kotasun honen ondorioz, gogorkeria-ren agertzeari aukera galanta eman zitzaion, sarritan logikarik gabeko istiluak eta borrokak sortu zituelarik. Jagoleen gogorkeria bazter guztietara zabalduz joan zen. Iñigo Ortes de Velascok, Arabako Diputatu Nagusiak zioen bezala, aduanetako gobernatzaileari bidalitako oso gutun adierazgarri batean: «no parece sino que estan persuadidos de que complacen a Su Magestad con la violencia de sus vasallos»<sup>10</sup>. Egia esan, objektiboki, alde baten eta bestearen portaerak nahiko gogorrak izan ziren eta, gainera, borro-

ka honetan benetako aurkariak (Koroak eta hiru herrialdeetako agintariak) inoiz ez zuten ezer egin istilu hauekin bukatzeko, ez bada bere helburu eta nahiak lortzeko erabili.

Borroka hauen zentzua hobeto ulertu ahal izateko, gogoan izan behar dugu nondik eta nola erreklutatzen zituzten aduanetako jagoleak. XVIII. mende-ko Hazienda Idazkaritza eta Superintendenziak zein Tabako Juntak sorturiko arautegi guztietan azpimarratzen zenez, aduanetako jagole bihurtu nahian zebilenari lehendik Erregearen armadako gorputzen batean parte hartzea exijitu behar zitzaion, hau da, suzko armak eta arma zuriak erabiltzen trebea izatea. Erregimen Zahar-rean armak eramatea erabat debekaturik eta zigorturik egon arren (salbuespen batzuk bazeuden; armak erabiltzea eta eramatea onarturik zegoen ekintza legezko bat egiteko beharrezkoa zela frogaturik, adibidez ehiza egitera joateko), aduanetako jagoleek suzko armak eraman eta erabiltzeko baimena zuten<sup>11</sup>. Beste aldetik, ez dugu ahaztu behar kontrabandistek ere suzko armak erabiltzen zituztela.

---

8. Salaketa honen argudioa pasarte honetan ikusten da: «Ni ellos se internaron en seguimiento a contrabandistas y persecucion a fugitivos ni ellos tomaron el uso de la justicia, sino que de autoridad privada con el simple aviso a un regidor pedaneo atropellaron la casa de un vecino honrado con riesgo de consecuencias funestas, si su conocida prudencia no las hubiera evitado sufriendo tan injusta humillacion. Espero pues que convencido VS. de lo mucho que conduce al Real servicio el que cada autoridad se contenga en sus fines y ratificando las pruebas que tiene dadas de su adhesion a la observancia de las ordenes de S.M. castigue a Barrasa y dos dependientes como osado contraventor de ellas y como atentador de los derechos de los Vasallos de S.M. y fueros del pais». [G]ASTEIZKO [U]DAL [A]AGIRITEGIA. Infantado Dukearen Ermandadeetako Akta eta Dekretu Liburua. 104-1 Zbk. 54r. Fol.

9. Horrela zioten XVIII. mendeko nekazari bizkaitarrek: «mui temido y paboroso en la sencillez de aquellos naturales en la mente femenil ya porque en viendolos presumen que les quieren quitar sus fueros, libertades y exempciones» (Portillo 1991: 601).

10. ALHA. DH. Leg. 440-5 Zbk. Kantabriako Aduanetako Gobernadoreaz, kontsulta daiteke Angulo 1993: 93-103.

11. Horregatik ez ziren arraroak izaten gogorkeriaz beteriko gertakizunak: Ulibarri-Ganboako landa batean, XVIII. mendeko Gasteizko Aduanako Jagoleek bidaiari batzuen aurka indarra erabili zuten: «pasajeros desarmados executando con ellos estorsiones violentas irregulares y enteramente reprovadas ... que no contentos con estos excesos disparo uno de ellos una arma de fuego con la quel hirio gravemente al nominado Murgilioreña y estando tendido en tierra malamente herido lo bolbio a amenazar con una pistola apuntandole al pecho con ella». ALHA. DH. Leg. 148-1 Zbk.



Esate baterako, behin Gasteizko jagoleek Santa Klarako atean hiru pertsona ikusi zituzten beren lana bukatzeaz zeudela, eta beste lankide batzuk zirelakoan hurbiltzen hasi ziren, baina kontrabandistak zirela konturatu ziren zeren eta, tutik esan gabe, tiroka hasi baitzitzaizkien<sup>12</sup>. Gasteizko jagole-talde honen partaideak euskaldunak ziren Domingo González de Garibay, Miguel Ignacio de Elizalde, Pedro de Cortazar eta José Ruiz de Velasco. Izan ere, jagoleak izateko Espainia osoko pertsonak bere izena ematen bazuten ere, euskal herritar ugari sartzea lortu zuen, bide, haran, bidexka eta txoko gehienak oso ondo ezagutzen baitzituzten.

Datu hauek ezagutuz, garrantzi handiko borroka odoltsu eta luze bat sortzeko oinarriak jarrita zeudela ikus-tea nahiko erraza da, batik bat istilu hauen sortzaileek inoiz ez zuten hika-mika hauek galarazteko ezer egin eta. Aitzitik, dagoeneko esan dugunez, arazoak erabili ziren alde bakoitzaren nahiak eta argudioak justifikatzeko, xake-joko baten peoiak balira bezala. Inork ez zuen gogorkeriaren hedapena amaitzeko tutik esan, ezta egin ere. Ideia nagusi bat besterik ez zegoen: aurkako bakoitzaren eskubideak eta nagusitasuna aldarrikatzea nahiz artatzea eta, helburu honen bila, berdin zitzairen zeintzuk izango ziren prozesu honen ondorioak, are gutxiago herri xeheari zein jagoleei dagokienez. Baina, gogorkeriaren gorakada egon arren, administrazioaren ikuspuntutik 1727ko

paktuaren ostean Koroaren eta euskal aldundien arteko elkarlana kontrabandoaren aurkako borrokaren onurarako etorri zela esan dezakegu. Honen eta mota honetako beste akordio batzuen bidez, poliki-poliki borboiek legez kontrako ekintza guztiei jartzen zizkieten oztopoak gero eta handiagoak –eta egokiagoak– bihurtzen hasi ziren.

Hala eta guztiz ere, oraindik XIX. mendearen hasieran kontrabandoari buruzko aipamenak agiritan aurkitzea oso erraza da, Claudio de Ichaso, Kostaldeko eta Mugetako Karabineroen 4. Komandantziko Buruaren 1832ko txosten adierazgarri batek erakusten digun bezala:

por mas que en realidad haya mucho contrabando en este pais y que si se disemina es de un modo mezquino y ratero, *mas que no hay contrabandistas o que si efectivamente los hay lo son todos sus naturales*, sin que los carabineros puedan reprimirlo aunque lo persiguen y sofocan por el escandaloso abuso que hacen a la sombra de sus fueros que no les autorizan para tan depravado trafico<sup>13</sup>.

Pasarte motz horrek aitortzen digun bezala, kontrabandoaren aurkako borrokaldian sarturik zeuden aduanetako jagoleen zein beste talde armatuetako partaide askoren iritzi, arabarrek legez kontrakoa bezain onuragarria zen ekintza ekonomiko honetan barra-barra parte hartzen jarraitzen zuten, eta are okerrago, herri xeheak eta tokiko agintariak ekintza ekonomiko honen zilegitasuna justifikatzen zuten<sup>14</sup>.

12. «Persuadidos a que fuesen sus compañeros que igualmente andaban de Ronda, se acercaron a ellos sin el menor recelo a tiempo que sin hablar palabra, les dispararon quasi a boca de cañon tres tiros, dejando mortalmente heridos a Garibay y Elizalde». SAO. SSH. Leg. 2.281.

13. ALHA. DH. Leg. 440-13 zbk. Etzana gurea da.

14. Ichasoren beraren berbak erabiliz, salaketa hori ulertzeko modukoa da: «el animo de los carabineros siempre dispuestos a perseguir los defraudadores por mas que la malignidad y corrupcion de dichas justicias y aun de personas de algun rango y categoria, propendan a querer desconceptuarlos por una animosidad criminal». Ichasok Arabako agintari batzuek kontrabandoaren baliagarritasuna aldarrikatzen zutela erakutsi nahi digu. Ibidem.



lchasok zioen, esaterako, legediaren aurkako erasoak gero eta normalagoak zirela eta, gainera,

hasta en las conversaciones particulares de sugetos de dignidad y caracter contra lo que su misma conciencia les dicta, declarando en general una criminal antipatia que de vera desvanecerse si se adoptan los medios de que desaparezca y se destierre el error de considerar el trafico del contrabando como un medio licito de ganarse la vida y por consiguiente al que lo persigue como un delincuente cuya idea se fomenta en los incautos y gente rústica por los que debería hacerles mirar con horror tan detestable medio de agenciarse la subsistencia causando al fin la ruina de tantas familias<sup>15</sup>.

Hala eta guztiz ere, XVIII. mendean zehar, badirudi borboiek eta bere zerbitzariak ontzat hartu zutela tokiko agintarien laguntza borroka odoltsu eta korapilatsu honetan.

Espero genuen bezala, Euskal Herriko agintarien hurrengo eskaera-idazkietan makina bat aldiz errepikatuturik agertuko zaigu argudio hori: kontrabandoaren aurkako borrokan beraiek eduki lezaketen partea. Probintziaren beste komunitate batzuen iritzien aurka, Arabako Aldundiak (zehazkiago, Diputatu Nagusiak eta Biltzar Nagusiak) beste baliabide batzuk lortu zituen, tabako eta beste produktu batzuen barneko mugimendua kontrolpean edukitzeko. Esate baterako, Diputatu

Nagusiaren eskuetan geratu ziren, besteak beste, denda publikoetan tabakoa saltzeko baimenak emateko eskubidea eta gida bereziak emateko pribilegioa<sup>16</sup>. Teoriatik ikusita, XVIII. mendean zehar Koroak ulertu zuen lurralde hauetako agintariak eskainitako elkarlana onuragarria izan zitekeela ulertu zuen eta, logikaz, ahalegin guztiak jarri zituen beste arlo batean: Arabako erakundeak eta agintariak arabarrak kontrolatzen zituztenez gero, Koroak kontrabandoaren negozioetan sarturik zeuden kanpotarren kontrola bere gain hartzea hobetsi zuen. Honetan, ez dugu ahaztu behar Arabako Aldundiak Koroako zerbitzarien erasoak aurre egiteko argudio bat behin eta berriz aldarrikatzen zuela: Arabako lurraldeetan kontrabandoa bazegoen ere, aduanetako jagoleek inondik inora ez zutela ezlegezko ekintza honetan sarturiko arabarrak harrapatu. Idazki gehienetan kontrabandista ia guztiak *Cerveratarrak* zirela baieztatzen zen ziurtasun osoz eta inoiz ez zirela arabarrak aldarrikatzen zuten gogorki Arabako politikoei<sup>17</sup>.

Beraz, Euskal Herriko erakunde politikoekin egindako akordioei esker eta Koroaren zerbitzariak egoeraz jabetuz joan ziren heinean, kontrabandoaren aurkako borroka edo gerlan, handik aurrera arerio nagusi bakarra perfilatu zen: Euskal Herriko lurraldeak zeharkatzen zituztenak Espainiako barneko aldera joateko (besteak beste zamariak, langileak, arloteak, kontra-

15. Ibidem. Kontrabandoaz berba egitean, Koroaren zerbitzariak, ekonomiaren aldetik, legez kontrako ekintza honen garrantzia aldarrikatu ezezik, ikuspuntu moral batetik ere azaltzen zuten. Valdeparaiso Konteak esaten zuenez, Araban zegoen kontrabandoak ekartzen zuen «notable decadencia en los valores de la Renta y lo que es mas sensible la perdida de los muchos vasallos que con abandono de sus casas, y familias, se dan al Contrabando, sufriendo los castigos». ALHA. DH. Leg. 286-16.

16. *Gida* bat zer zen gainetik azaltzeko, esan dezakegu leku batetik bestera edozein ekoizkin eramateko ziurtagiri bat zela; dokumentu hau zamarietara aduanetan ematen zieten.

17. Kontrabandoaren munduan, *zerberatarrak* berbarekin nafarrak, Errioxakoak, Manchakoak, portugaldarrak, Aragoikoak, etab. izendatu nahi zituzten. Zuaznavar y Francia 1831: 12.

bandistak, ijituak, marginatuak, etab.); azken finean, kontrolik gabe han-hemenka mugitzen zirenak. Honetan, behin-behin, bat zetozen euskal Aldundiak eta Koroa inolako kontraesanik gabe. Alabaina, orduko Euskal Herrian hirugarren jurisdikzio bat ere tartean bazegoen, zeina arazo honetan kontuan hartu beharrekoa baitzen ezinbestez: Elizarena. Jurisdikzio honek bi atal zituen: batetik jurisdikzio pertsonala zegoen, elizgizonei eta, konkretuki, kontrabandoan buru-belarri sarturik zeuden zenbait elizgizonek egindako legez kontrako ekintzei zegokiena; bestetik, arreta gehiagoz ikusi nahi dugun lurralde-jurisdikzioarena, hots, kontrabandistek nola erabiltzen zuten leku sakratuen babes-a duen eta tabako-errentako jagoleen eskuetatik ihes egin nahian.

### **XVIII. mendeko leku sakratuen babes-eskubideak desagertarazteko ahaleginak eta elkarlana**

Gai honen garrantzia, Erregimen Zaharreko Lege-libururik garrantzitsuetan agertzen zaizkigun aginduek neurtzen digute, esate baterako Carlos IV.ak bildutako *Novísima Recopilación* lege-liburu nagusiak, zeinean Erdi Aroko legeditik XVIII. mendeko bigarren zatiaren bukaeraraino leku sakratuei zein babes-eskubideari buruzko agindurik aipagarrienak elkaturik aurki baititzakegu. Bilduma honetan begibista-koa denez, puntu honetaz lege zaha-

rren laguntza aldarrikatzen da; hala nola *Fuero Real*-ean Erregeak ozenki aitortzen zuen ondokoa:

la Iglesia no defiende a robador conocido; ni hombre que de noche quemare mies, o destruyere viñas o arboles; o arrancare los mojones de las heredades; no hombre que quebrantare la Iglesia o su cimiterio, matando o hiriendo por ella, por pensar que sera defendido por la Iglesia<sup>18</sup>.

Baina legedi eta arautegi guztiekin sarritan gertatu ohi zen bezala, idatzitako legeok ez ziren betetzen eta, Erregeek jarraian gero eta agindu berri gehiago sortu beharra izaten zuten. Hor dugu, adibidez, Errege Katolikoen 1498ko maiatzaren 14ko *pragmatika*, zeinaren helburua XV. mendearen bukaeran nahiko arrunta zen legez kontrako egoera batekin erlazionaturik baitzegoen: zordunak, bere zorrak ordaintzea ia-ia ezinezkoa zela ikustean, elizetara edo monasterioetara abiatzen ziren leku sakratu haiei zegokien babes-a eskatzera<sup>19</sup>. Lege horren arabera, haatik, leku sakratura joaten zirenek ondasun guztiak –dirua, aberreak zein altzariak– galduko zituzten, ordura arte sistema honek bere ondasun hauek babestu eta legearen eraginetik at uzteko balio ohi baitzuen.

Bi mende geroago, Ondorengotza-Gerlan zehar desertoreen arazoa nahiko arrunt bihurtu zen eta, 1708ko martxoaren 14ko Erret Zedula batek adie-

18. *Novísima Recopilación de las Leyes de España*, VII. Alea, Madril, La Publicidad Moldiztegian, 1850, 17 or.

19. Pragmatika honek ondokoa erakusten digu: «Porque conforme a Derecho los que tienen obligadas sus personas por cualesquier deudas que deba, aunque despues de hechas las tales obligaciones, por no pagar lo que asi deben, se retraen y acogen a las Iglesias y Monasterios, creyendo por aquello han de gozar de la inmunidad eclesiastica, y que no pueden ser sacados de los lugares sagrados; declaramos que no pueden ni deben gozar de la tal inmunidad, para se excusar de dexar de pagar las dichas deudas que deben; y que dada y rescibida por el Juez seglar seguridad, que no procederá contra tal deudor o deudores a pena criminal ni corporal, que pueden y deben ser sacados de las Iglesias, y puestos en la cárcel seglar». Ibidem, 17 or.

razten zuen legez, soldadu iheslari hauek beren buruak babesteko leku sakratuetara jo ohi zuten. Azken finean, Espainiako Koroaren politikaren atzean, bere eraginetik at geratzen ziren lekuak, jurisdikzioak eta pertsonak kontrolpean edukitzeko asmoa ezkutatzen zen. Borboiek, honetan, lege-salbespenik gabeko gizarte bat eraiki nahi zuten, eta hortik helburu horren bidean kokaturiko oztopoak go-gorki alderatzen saiatu ziren. Alabaina, prozesu honetan bertan Koroak eta legegizonen asmatuak sistemak gizartetalde pribilegiatu guztien lege bereziak ezabatu nahi ez zituenenez, erdibideko irtenbide bati ekin zitzaion. Leku sakratu hauek, gaizkileek, kontrabandistek, hiltzaileek, lapurrek eta desertoreek legeak seinaturiko zigorrak sahiets zitzaketan zulo handi bihurtu zirenez, gaizki interpretatutako babes hori modu ez-legezkoan erabili ohi zutelako, aduanetako jagoleek eta oro har justiziek leku hauetara sartzeko eta gaizkileak handik ateratzeko eskubidea bazutela aldarrikatzen hasi zen legedietan. Baina, irtenbide honen bitartez, talde sozial pribilegiatu batzuen eskubideak (garai hartako berberak babesten zituenak) desagertuz joateko arriskuan zirela jabetu zirenez, Espainiako Koroaren zerbitzariak konprometzuzko konponbidea asmatu eta garatu zuten: Erregearen ordezkariak leku sakratuetara sartzeko eta handik legez kontrako iharduerak egin zituztenak indarrez ateratzeko eskubide guztiak zituzten baina, leku sakratuei beraiei zegokien jurisdikzioaren aurrean eraman behar zituzten.

Antza denez, sistema bikoitz honen erabilpena nahiko emankorra suertatu zen. Gainera, Erromako Aita Santuaren administrazioarekin 1737an lorturi-

ko hitzarmen luzearen bigarren, hirugarren eta laugarren atalek XVIII. mendearen hasieratik haren erabilera sendotu egin zuten. Adibidez, bigarren atal honetan irakur dezakegunez,

para mantener la tranquilidad del público, e impedir que con la esperanza del asilo se cometan algunos mas graves delitos, que puedan ocasionar mayores disturbios, dará su Santidad en cartas circulares a los Obispos las órdenes necesarias para establecer que la inmunidad local no sufrague en adelante a los salteadores o asesinos de caminos, aun en el caso de un simple insulto, con tal que en aquel acto mismo se siga muerte o mutilación de miembros en la persona del insultado<sup>20</sup>.

Horrela, akordio honen garrantzia adierazteko asmoz, 1737ko Konkordatoan aurkitzen dugun lehendabiziko adibidea nahiko adierazgarria da, baina ez dugu ahaztu behar hitzarmen honen bidez mota guztietako legez aurkako iharduerak eta krimenak desagertarazi nahi zituztela; gainera, kontrabandoaz mintzatzen garenean, gogoratu beharra dugu askotan produktu debekatu batzuk pasatzeaz gain kontrabandistek Koroaren ordezkariak zauritu edo hil egin ohi zituztela. Aldi berean, ikusten ari garen prozesu luze honetan Elizaren partaidetza ez da nolanahikoa, zeren eta bai botere ofizialak, bai herri xeheak ere, Elizak emandako berronespena argiro ulertzen baituzten.

1737ko irailaren 26ko Konkordato hark Elizaren buruek lehenago sorturiko beste neurri batzuk berreskuratzen zituen, esate baterako, Clemente XII.ak ebatzitako 1734ko urtarrilaren 29ko bulda (*In supremo Justitiae solio*) edo Gregorio XIV.ak eta Benedicto

20. Ibidem, 18 or.

XIII.ak egindakoak (*Cum alias* eta *Ex quo Divina*)<sup>21</sup>. Lege zorrotz hauetan agertzen diren kasuetatik ondorioztatuz, leku sakratuei zegokien kasu guztietan lehenengo erabakia elizako epaileen eskuetan argiro adierazten zuten; epaile hauek kasu bakoitzaren epaiketa egitea nori zegokion ikertu eta azaldu beharko zuten. Puntu honen arabera, leku sakratuetatik gaizkileak ateratzea legezkoa zen, baina, azken finean, eliz epaileek azken hitza izaten jarraitzen zuten. Hauek gaizkileen ezaugarriak eta haiek eginiko delituen zentzua eta garrantzia erabaki behar zutelako. Edonola ere, XVIII. mendean zehar erregalismoaren teoriaren eragina gero eta handiagoa zela kontuan hartuz, botere zibil eta eklesiastikoaren arteko elkarlana aurkitzeak ez gaitu harrituko; kasu batzuetan, gainera, eliz gizonak erakusten diguten zabarkeria eta eskugabetasunaren eraginagatik, leku sakratuetatik ateratako pertsonak zuzenki botere zibilararen kargu geratzen ziren. Oro har, poliki-poliki, leku sakratuetara babesaren bila abiatzen zirenak, gero eta zailtasun gehiago aurkitzen zituztela ohartzu joan ziren.

Instituzio hauen arteko kolaborazioa, Clemente XII.ak sinatutako bulda hartan, oso nabaria zen, zeren eta Eli-

zak eta eliz epaileek botere zibilararen laguntza eskatzeko baimena baitzuten, «siendo el delinqüente clérigo, y siendo lego, despues que sea requerido por el Tribunal seglar, esté obligado a proceder, con la intervención de alguna persona eclesiástica deputada a este fin por el Obispo, a la extracción del mismo delinqüente de la Iglesia o lugar inmune, *implorando tambien para esto, si fuere necesario, el auxilio del brazo secular*»<sup>22</sup>. Hasiera batean lege honen balioa Aita Santuaren lurraldeetan besterik ez zen aplikatzen, baina, 1737ko azaroaren 14ko beste Breve batean, Clemente XII.a Aita Santuak bulda honetan aipaturiko atal guztiak derrigorrez bete behar zirela gogoratzeaz gain, ezarritako neurri guztiak mundu katolikoaren bazter guztietaraino luzatzen zituen<sup>23</sup>. Azkenengo legea indartu nahian, eta Aita Santuaren laguntzaz, Espainian babes-eskubidean sarturik zegoen beste ohitura bat desagertarazi nahi izan zuten: *Iglesias frias* izenarekin ezagutzen zena. Garai hartako legebilburuetan zehazki begiratu badugu ere, ez dugu esamolde honen bereizmenik edo azalpenik aurkitu; hala ere 1737ko Konkordatoan aipatzen denez, leku sakratuetatik at harrapaturiko gaizkileek babes-eskubidea barnean izan balira bezala eskatzea arras zabaldutako ohitura zen Espainian.

21. Lege berezi hauen asmoa zen Vatikanoan bertan kontrolik gabe areagotzen ari zen hilketa-kopurua gutxitzea. Horrela zioen: «excluyeron del beneficio de la inmunidad eclesiástica los legos residentes en Roma y en los demas dominios sujetos a la Silla Apostólica, que con ánimo deliberado y premeditado osaran matar a su próximo, o hacer dentro de Sagrado muertes o mutilación de miembros; y también los salteadores de caminos y calles, ladrones públicos y famosos, taladores de campos y heredades, alevosos, hereges, traidores y falsificadores de Letras Apostólicas; los Superiores y empleados en Montes de Piedad, u otros fondos o Bancos Públicos, que cometieren hurto o falsedad; los monederos falsos, cercenadores de monedas de oro y plata; los fingidos ministros de Justicia que entraren a robar las casas con muerte o mutilación de miembro, o los demás crímenes, que por Derecho estuviesen exceptuados: se previene, que la declaración sobre si los reos deben gozar o no de la inmunidad toca al Juez eclesiástico». *Ibidem*, 19 or.

22. *Ibidem*. Etzana gurea da.

23. Breve honetan funtsaturik zegoen 1741ko maiatzaren 12ko Erret Zedula batek horrela zioen: «por el temor de las presentes letras extendemos y ampliamos la referida constitucion por Nos hecha para todos los dominios de la Santa Iglesia Romana en todo lo antecedente inserto a los reynos de España respectivamente». *Ibidem*, 20 or.

Izan ere, botere hauen elkarlanaz leku sakratutzat hartutako lekuak murrizten hasi ziren. Egoera honen ondorioak askoz hobeto ulertzearren komeni da Euskal Herriko eliz geografia nolakoa zen jakitea. Esaterako, euskal haran gehienetan baselizaren bat aurkitzea nahiko arrunta denez, eraikuntza hauetatik hurbil bizi zirenek bazekiten non zeuden kokaturik leku berezi hauek eta –nahiz eta kulturik gabe egon– arrisku-uneetan erabiltzeko modukoak zirela. Hala eta guztiz ere, norbaitek esan dezake Euskal Herrian garaturiko kontrabandoan batik-bat kanpotarrek parte hartzen zutela; baina, aldi berean, aduanetako jagoleek errepikatzen zuten legez, ez zaigu ahaztu behar kontrabandistok espioi askoren laguntza zutela, espioi hauek bertoko biztanleak zirelarik. Azken finean, Espainiako Koroaren eta Elizaren zerbitzariak erabat konbentziturik zeuden kontrabandistek beste leku berezi batzuekin batera (tabernak, bideko bentak, etxe partikularrak, etab.), baselizak ere sarri erabiltzen zituztela, haien eskuetatik ihes egiteko<sup>24</sup>. Arrazoi honengatik, 1737ko 4. atalean Elizak eta Erregeak adierazten zuten, gaizkileek inmunditatea eskatzerakoan, ez zutela onartuko inondik inora baseliza hauen erabilera:

